

B

1872.urtean Norvegian jaio zen. Lurralde polarretako esploratzaile norvegiarra izan zen.

Familiako laugarren semea, aitak itsasontziak zituen eta itsas armadako kapitaina izana zen. Amak itsasotik urrun atxiki nahi zuen semea eta medikuntza-ikasketa egitera bultzatu zuen.

Ipar polora joateko lehenengo saiakera bizikletaz egin zuen, baina botak etxean utzi zituen txankletetan joan zen.

Ipar poloaren konkista bertan behera geratu ondoren, Saharara joan zen gameluak erostera, oso animalia aproposak direlako izotzaren gainean ibiltzeko.

Hego Polora joan eta gero, Artiko inguruan bidaiatzen jarraitu zuen, itsasontziz, hegazkinez zein globo gidatuan. **1928**ko ekainaren 18an haren lagun Umberto Nobile Ipar polora joan zen globo gidatu, baina, arazo baten ondorioz, galdu egin zen. *Esploratzaile* hau lagunaren bila joan zen hegazkinez eta istripu batean hil zen.

Ipar Polora heltzen zen lehenengo gizakia izatea zen bere asmoa, baina Robert Peary eta Henson amerikarrak aurreratu zitzaizkion. *Esploratzailea* baino arinago heldu ziren.

1911ko urriaren 19an abiatu ziren esploratzailea eta bere taldea Hego Polorantz, 52 txakur eta lau lera hartuta. Bidaian zehar, elikagai eskasiari aurre egiteko, 24 txakur hil zituzten. Esploratzaileak zein gainerako txakurrak elikatzeko, sobera zeuzkaten jakiak bidaiaren bueltarako gorde zituzten.

Hego Polora iritsita, Norvegiako bandera jarri zuen eta kanpin-denda batean bere lehiakide zen Robert Scott-entzat eskutitz bat utzi zuen. Scott eta bere taldekideak 35 egun geroago heldu ziren Hego Polora, baina bueltako bidean hil ziren.

Egoera horren ondorioz, bere helburua aldatu zuen eta Antartikako Hego Polora abiatu egin zen. Bere espedizioko kideak oso ondo prestatuta zeuden, aurreko espedizioan ikasitakoari esker, eta, txakurrez tiratutako lerak, eskiak eta inuiten larruzko jantziak erabiliz, helburua lortu zuen **1911.** urteko abenduaren 14an.